# Gramatika 2

## Ordenatu esaldietako hitzak eta berridatzi.

- neskatxa / herriko / nire /politaren / nahi / ikusi / politak / begi / ditut

- guztiak / jator / herritar / ziren / Donostiako / kontzertura / bandaren / etorri

- txiki / entzun / polita / adarreko / dugu / sagarraren / aldapeko / txori / kantari

- gure / atzo /giltzak / etxean / amamaren / genituen / ahaztu

## NON DAUDE ESERITA?



Miren, Imanol, Xabier, Uxue, Andoni eta Axun Baztanen daude oporrak pasatzen. Sei lagunek furgoneta bat alokatu dute eta Iruñera joan dira egun-pasa. Irakurri datuak arretaz eta adierazi zer tokitan eserita dagoen bakoitza.
Andoni Uxueren ondoan dago, eta Imanolen aurrean. Imanol eskuinean eta atzean dago eserita. Xabier ezkerreko eserleku batean dago eta Miren du alboan. Uxue Axunen aurrean dago eta Xabierren atzean.

## Irakurri testua eta idatzi kasu hauen markak dituzten hitzak.

- Nor:
- Nork:
- Nora:
- Noren:
- Nongo:
- Non:

liveworksheets.com

## Jarri deklinabide-marka parentesi arteko hitzei.

- Nekatuta egon arren (bide) ekin genion berriz ere.
- «Aupa neskak! Eutsi (goi) !», esan zigun entrenatzaileak.
- Tontakeria itzela deritzot zuk esandako (kontu) .
- Ezetz esan zuen, (buru) eraginez.

## Osatu elkarrizketa, emandako hitzei leku-denborazko marka egokiak erantsiz.

# KasKoa bUrUan eta ibili mUndUan

– Kaixo, Amaia. Nora zoaz?

– Kaixo, Unax. Presa handiz nabil, (dentista) noa-eta.

–(Plaza Nagusia) du kontsulta, ezta?

–Bai. Zergatik?

– Eramango al nauzu zure (motorra) ?

Nik (lagunak) joan behar dut, eta (plaza) gertu bizi dira.

– Ondo da, (plaza) eramango zaitut. Jantzi kaskoa!

– Kaskoa? Zertarako? Nik konfiantza osoa dut (zu) .

Gidari aparta zara!

– Zeuk ikusi, Unax; kaskoa janzten ez baduzu, ez gara mugituko (hemen)
.

## Esan deklinabideko zer kasuri dagokion nabarmendutako hitz bakoitza.

- Oparia ***amarengandik*** jaso dut. _
- Jon ***menditik*** etorri zen. _
- ***Kokoteraino*** nago zutaz. _
- ***Munduaren*** etorkizuna gazteongan dago. _
- Berria ***irakaslearenganaino*** heldu da. _
- Haurrak ***amarengana*** eraman nituen. _

liveworksheets.com

## Jarri NOREKIN edo ZEREZ kasuen markak hutsuneetan.

- Telefono……… hitz egin dut aitonarekin.
- Aitonak teléfono………. jo nau, nahi gabe.
- Jertse berriaren etiketa………… joan da kalera.
- Dantzaldira etiketa………… jantzita joateko esan digute.

## Jarri garbitu aditzaren ordez antzeko esanahia duena.

| hil | konponduko | kitatu | ikuzten |
|---|---|---|---|

- aspaldi, emakumeek iturrian (garbitzen) ............................ zituzten arropak.
- kontu hori neuri dagokit eta neuk (garbituko)....................................  dut.
- Loteriaren diruarekin zorrak (garbituko)…………………………… ditugu.
- Filmean, heroiak gaizto guztiak (garbitu) ………………………… zituen.

## Jarri esaldietako hutsuneetan falta diren aditz *trinkoak.*

- Ahizpa eta biok guztiz aspertuta …………………atzo etxean.
- Txakurra batera eta bestera …………………….. , zer egin jakin ezinik.
- Nik buruko min ikaragarria ………………. eta orain ez……………. ezer egiteko gogorik.
- Zuek ez ……..................... bat gure taldekoek esandakoarekin.
- Zuk lore mota askoren izenak …............. txikitan. Gaur egun askoz gehiago.................... .

liveworksheets.com